



Ostiral iluntzean,
maila handiko
bi aktoreren
parte hartzearekin

2015eko otsailaren 20a, 429 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ANTZEZLANA BASTERON

Euriak ez zituen umorea eta mozorrotzeko gogoak uxatu



Ezkongaiak ihesean, dortsala jantzita. Inauterietako mozorro dibertigarrienetakoak.

Larunbateko ospakizun nagusiak burutu zituzten, euria gogotik egin arren. Nahi izan zuenak gozatu zuen.

Inauteriak ez ziren bertan behera geratu, mozorro-tuek euren asmoari tinko eutsi ziotelako. Larunbatean euria besterik egin ez bazuen ere, karrozak eta konpartsak kalera irten ziren.



Babesean egoteko giroa zegoen; Urnietan ospakizuna Egapeko jolastokian egin zuten.

Urnietan marrazki bizidunen girokoa izan zen inauteria. Belaunaldi ezberdinetan gogoan iltzaturik geratu ziren pertsonaia ikusi ahal izan ziren, besteak beste, Hartz maitekorrak, Pottokiak, Ninja dordokak,...

Andoainen mendeurrena ospatzen dela eta, Plazaolako trenbidearen garaia gogora ekarri zuten. Eta baita iragan mendeko irakaskuntza ere. Bi herrietako argazkiak eta bideoak ikusgai daude webgunean.

Bertsoak Sahara herriaren alde

Igande eguerdian Basteron Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, Alaia Martin, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi bertsoan arituko dira, Hurria-Saharak urtero antolatzen duen bertso saioan.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Erregistro zibila, etorkizun iluna

Espainian Bake Epaitegien zerbitzua murriztu eta eskaintza pribatizatuko duenaren beldur da Ramon Iriarte bake epailea.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Andaluziaren eguna otsailaren 28an

Triana Andaluziako kultura elkarteak Andaluziaren eguna antolatuko du otsailaren 28an.

Eguerdian harrera egingo diete agintariei eta ereserkia abestu eta gero, hildako elkarteko kideak gogoan izan-

go dituzte. Segidan bazkaria egingo dute eta arratsaldeko 19:00etatik aurrera dantza emanaldia egingo dute hainbat talderen parte hartzearekin. Besteak beste, dantzari txikiez osaturiko taldea taula gainean ikusteko aukera izango da. Baita Merche Montes bakarlaria ere. Gauean herri afariarekin amaiera emango diote egunari.



Triana taldeko abesbatza taldea.

Ez ohiko irudia Allurralde kiroldegian

Galardi haurreskolan lan egiteko deialdian 480 pertsonak eman zuten izena, eta azterketara 277 lagun hurbildu ziren.

Astearte goizean Allurralde kiroldegiko kantxak ez ohiko irudia eskaini zuen. Mahaiz eta aulkiz beterik zegoen, Galardi haurreskolak egin

duen deialdiari erantzunez. Hezitzaile lanetarako lan-poltsa sortzeko lehiaketa-oposaketa deitu zuten eta hitzordura ia hiru-rehun lagun hurbildu zen. Ia guztiak emakumezkoak ziren, gizonetzkoak oso gutxi ziren bitartean. Zehazki, bost gizonetzko izan ziren.

Lan deialdia burutzeko hainbat Udal langile aritu zen lanean. Epaimahaia Eusko Jaurlaritzako eta Andoaingo Udaleko langileek osatu dute.



Hezitzaile lanetarako lan-poltsa sortzeko deialdiak arrakasta handia izan du.

Txotx garaia Urnietan

Oianume eta Altuna sagardotegietan lanez lepo ibiliko dira hurrengo asteetan. Oraingo joera zein den nabarmendu dute. Bezero gehienak asteburuan eta bazkaltzera etortzen dira.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

‘Irabazi Ganemos Andoain’

Ostiral honetan 18:30etan Urigainen aurkeztuko dute maiatzeko Udal hauteskundeetan aurkeztuko den proposamen politiko berria.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

INAUTERIAK 2015

Mozorro festa euripean

Marrazki bizidunak etxeko epelean ikusten diren bezalaxe, modu horretan igaro zen inauteri festa Urnietan: aterpean. Aterpean, eta lagun askoren babesean. Inauterizaleen taldea handituz doalako. Ka-

rroza ezberdinak ikus zitezkeen, eta baita koadrila asko ere. Horieta-ko batzuk ikuskizuna Egape ikastolako jolastoki estalian eskaini zuten. Datorren urtean eguzkiak ere bere agerpena egin dezala.



Up film ederraren bi protagonista nagusiak gogora ekarri zituzten argazkikoek: aitona eta bere etxera agertzen den mutila.



Kolore eta izaera guztietako Hartz maitekorak, maiteminduen eguna ospatzen zen egun berean. Den denak ere poz pozik zeuden.



Asterix, Obelix eta erromatarrek denak batera ibili ziren Urnietako inauterietan. Bistan da bezperatik Asuranceturix libre ibili zela kantuan.



Bazkarian antolatzaileek edaria eskaini zieten festazaleei. Mozorro festan kupel txikia jarri zuten edaria-ekin. Hara hurbildu ziren animalia eta pizti ugari.



Egape ikastolakoek zirkoaren giroa ekarri zuten ikastolara, aurreko ostiralean. Desfilean ikus zitezkeen elefanteak, tximinoak, domatzailleak, malabaristak edota pallazo alaiak.



Presentacion de Maria ikastetxeok munduko dantzak eskaini zituzten, aurreko ostiralean: Euskal dantzak, salsa, tangoak, western giroko musika,...

INAUTERIAK 2015



Caillou koadrila Egape ikastolako jolastoki estalian.



Harriketarrak, gazteak eta ez hain gazteak, enbor gaineko ibilgailuan. Betty pozarren zegoen hainbeste mutilen artean.



Denak elkarrekin eta bakoitza bere mozorro ezberdinarekin.



Michael Jacksonen musikarekin dantza ikusgarria eskaini zuten Egapen. Giro bereko photo call-a jarri zuten Egur tabernan.



Teo Zoora joan eta handik hainbat animalia eraman zituen berekin.



Mozzorrorik dibertigarrienetakoa. Zaldiaren gainera azkar batean igotzen ziren.



Pottoki danbor-jotzaileak, Buruntzantzan taldearen mozorroa. Burrumba hotsak urrutitik entzun zitezkeen.



Urnietako inauteriak irudi bidez

AURTENGO SAGARDOA

Txotx garaia bete-betean

Lanez lepo ibiliko dira Patxi Iribar eta Xabier Altuna sagardogileak datozen asteburuetan. Oraintxe hasi dute denboraldia eta kupelak prest dituzte aurtengo sagardoa dastatu nahi dutenentzat.

“Bezeroak aurtengo sagardoa gustura edaten ari dira”



Patxi Iribar Etxaiz - Oianume

Nola hasi duzue txotx denboraldia?

Egia esanda, nahiko poliki. Momen-tuz, behintzat, jende gutxi dabil. Aste-buruetan ondo, larunbatetan bereziki; baina bestela oso ahul. Larunbat eguerdietan lepo izaten dugu sagardotegia, baina gauetan etortzeko ohitura galtzen ari da. Alkoholemia dela eta, jendeak nahiago du eguerdian etorri.

Denboraldiak harrera ahula izan duela esango al zenuke?

Orain arte jende gutxi izan da, baina nabari da pixkanaka igoera. Normalean, Inauterien ostean izaten da jende gehien, Aste Santura bitarte. Beraz, aste honetatik aurrera jendea gelditu gabe edukiko dugu.

Zer moduzkoa da aurtengo sagardoa?

Oso ona. Aurten, gure etxeakoak behintzat lehenengo etorri dira eta, nire ustez, lehengo urtetakoak baino meheagoak dira. Aurreko urtetakoak lodiagoak ziren eta aurtengoak arinago eta mehexeago etorri dira.

Bezeroak ere iritzi hori al dute edo zer diote?

Ederra dagoela diote, ez dira aurka-koa esatera ausartzen. Gustatzen ez zaienean esan izan digute, baina oraingoz ez dute kexarik izan. Gustura edaten dutela ikusten da.

Zenbat litro ekoizten duzue?

70 mila litro inguru ekoizten dugu, guretzat nahikoa. Dominatzen dugunerako nahikoa da.

“Batzuk jarraitzen dute zutik jaten, baina normalean jendeak eserita nahiago izaten du. Zutik jaten dutenak bertako kultura gehiago jarraitzen dutenak dira”

Garai batean zutik jateko ohitura zegoen. Oraindik mantentzen al da?

Gero eta gutxiago. Batzuk jarraitzen dute zutik jaten, baina normalean jendeak eserita nahiago izaten du. Zutik jaten dutenak bertako kultura gehiago jarraitzen dutenak dira.

Nongo jendea hurbiltzen da Oianumer?

Urnietarrez gain, inguruko herrietatik etortzen dira hona. Bestalde, Errioxa, Bizkaia eta Arabatik ere etortzen dira. Lo egiteko ostatua eskaintzen dugunez, kanpotik etortzen direnentzat erosagoa da.

Botilan ere saltzen al duzue. Zenbat saltzera iristen zarete?

Botilan 40 mila inguru saltzen ditugu; denboraldia amaitutakoan eta baita denboraldian zehar ere. Eguraldi beroa dagoenean saltzen dugu gehien, martxoa pasata, udara aldean. Ekaina, uztaila eta abuztua dira hilabete onenak botilako sagardoa saltzeko.

Non saltzen duzue gehienbat?

Pare bat banatzaile ditugu, baina etxean bertan ere asko kontsumitzen dugu.

Sagardotegi denboraldian sagardotegi aukera zabala dago. Konpetentzia hori nabaritzen al duzue?

Konpetentzia badago, baina norberak bere berezo leialak, urtero etortzen direnak ditu.

Zein da zuen bereizgarria?

Kalitatea. Horrek erakartzen ditu bezeroak.

Zuk zer nahiago duzu, botilatik ala kupeletik?

Botilatik, erosagoa delako. Egunero botilatik edaten dut.

Zutik ala eserita?

Eserita.

Biak ala biak bezeroen aldetik joera aldaketa nabaritzen ari dira: Afalorduan baino gehiago, jendea bazkaritara hurbiltzen hasi dela.

“Aurtengoa gorputz gehiagokoa da, iazkoa xuabeagoa zen”



Xabier Altuna - Altuna

Nola hasi duzue txotx denboraldia?

Aurreko urtean baino hobeto hasi dugu. Gainera, aurrera begira ere jendea deika ari da; beraz, pozik gaude. Martxoa izaten da indartsuena eta bezeroen %90a larunbatetan etortzen da, beraz, asteburu guztiak beteta ditugu.

Zer moduzkoa da aurtengo sagardoa?

Ona, aurtengoa gorputz gehiagokoa da. Lehengo urtekoa xuabeagoa eta kolore gutxikoa zen. Aurten, ordea, kolore gehiago du eta edaterakoan ere nabari da gorputz gehiago duela.

Zenbat litro ekoizten duzue?

Guztira 88 mila litro inguru ekoizti ditugu denboraldi honetarako. Egurrezko kupelez gain, inoxidablezko bi baditugu eta goian beste bat ere bada, urte batzuetan betetzen dena eta beste batzuetan ez; sagarrak ematen duenaren arabera.

Zer moduzko sagar uztia izan da aurten?

Lehengo urtean baino sagar gehiago izan da hemen. Hala ere, gutxi. Izan ere, lehengo urtean inoiz baina gutxiago izan zen, eta aurten gehiago izan den arren, ez da asko egon. Bestalde, lehenengo aldiz arazoak izan ditugu kanpotik ekartzeko, Frantzia eta Galizian arazo handiak izan dituztelako.

Garai batean zutik jateko ohitura zegoen. Oraindik mantentzen al da?

Oso oso gutxi eta oso tarteka. Badago esertzeko tokia izanda ere zutik egoten den inor; jende zaharragoa eta be-

netako sagardozaleak izaten dira.

Nongo jendea hurbiltzen zaizue?

Urnietatik, Donostia ingurutik eta Tolosaldeatik gerturatzen dira. Iparraldetik ere etortzen dira eta, esate baterako, japoniarrak ere izan genituen iaz. Trena gertu izateak eragin handia du; uste dut daukagun gauzarik onenetakoa dela, gaur egun ia inork ez duelako kotxerik hartzen.

Botilan ere saltzen duzue.

Botilatan edaten da ia guztia. Orain sagardoa kupeletan daukagu. Denboraldia amaitzeaz dagoenean, martxoa amaieran, botilatan sartzen hasten gara eta urte guztian zehar saltzen dugu.

Txotx denboraldian sagardotegi asko zaudete inguruan. Zein da zuen bereizgarria?

Tradizioa. Gaur egun, benetako tradizioa galtzen ari da, baina guk eutsi egiten diogu. Oraindik ia kupel guztiak egurrezkoak ditugu eta sagardotegiaren beraren itxura ere oso tradizionala da. Dena den, egia da modernizatzen joan behar dugula pixkanaka. Horren adibide da sagardotegien elkarteak atera berri duen “Txotx” aplikazioa.

Joera berririk nabaritu al duzue?

Azken lau urteetan nabaritu dugu jendea bazkaltzera etortzen dela, afaltzera etorri ordez. Larunbateko bazkaria bihurtu da indartsuen. Gazte jendeak eragin du hori, gazteriak nahiago duelako parranda egunetik hasi.

Zuk zer nahiago duzu, botilatik ala kupeletik?

Sagardoa bi eratan gustatzen zait, baina txotx egiteak xarma berezia du. Sagardoa mundu guztian zehar edaten da, baina txotx garaian kupeletara hurbilduz edatea hemen soilik egiten da. Bereizitasun horregatik nahiago dut txotx egin.

Zutik ala eserita?

Zutik esan beharko nizuke, baina ez da horrela. Lagunekin sagardotegira joaten naizenetan eserita jaten dugu; beraz, nahiz eta kulturalki zutik jatea politagoa izan, eserita jaten dudala aitortzea dagokit.



Andoaingo inauteriak 2015

EURIA ARI ZUEN GOGOTIK. 'ETA ZER?' PENTSATU ZUEN BATEK BAINO GEHIAGOK. EGURALDI KASKARRAK EZ ZUEN INAUTERIZALEEN GOGOA UXATU ETA DOZENAKA IZAN ZIREN INAUTERIETAKO MOZORRO DESFILEAN IBILBIDE OSOA EGIN ZUTENAK.



Euriak ez zuen inauterizaleen gogoa uxatu

TALDE HANDIAN, KOADRILAN, BINAKA EDOTA BAKARKA. INAUTERIA GOZATZEKO HAMAICA MODU DAUDE, ETA MOZORROAK ERE BESTE HAINBESTE. ANDOAINGO KALEETAN IRUDIMEN HANDIKO MOZORROAK IKUSI AHAL IZAN ZIREN BESTE BEHIN ERE.

Andoaindarrak 400 ekimenak aurtengorako mendeurrena gogoan izateko gonbitea luzatu zuen eta hainbat partaidek historiarekin zerikusia zuten mozerroak kalera atera zituzten. Kopuruan handiena Izartxo aisialdi taldearena izan zen. Plazaolako 31 lokomotora maisuki irudikatu zuten. Familia talde batek ere ibilgailu bat lokomotora bilakatu zuen. Pelotok taldeak ere Unanibia zubia aintzat harturik, sorginen garaia gogora ekarri zuen. Historia garaikideari keinu eginez, talde batek Franco garaiko eskola giroa irudikatu zuen. Neurri batean, beraz, Inauterietan mendeurrena gogoan izan da.

2015eko Inauteriak eguraldi petralagatik gogoan hartuko dira. Euria gogotik ari zuen kalejira egin behar zen orduetan. Atertzen ez zuela ikusita, kalejirari ekin zioten. Bat baino gehiago etxera blai eginda iritsiko zen. Ziurrenik ez zen hura arrantzale koadrilakoen kasua izan. Katuska eta arrantzale jantziekin salbu baitzeuden.



Izartxo aisialdi taldeak Plazaolako trenbidea biziberrituz, Andoaindarrak 400 ekimenaren eskaerarekin bat egin zuen.



Erizainak eta gaixoa, kalean bertan ebakuntza egiteko prest.



Zezen plazarik ez dago Andoainen, beharrik ere ez. Plaza ibiltaria irudikatzeko ez da asko behar izaten.



Xianeko soldadutxoak, iraganeko historia gogoan.



Kontzertu bufoa, urtero bezala, ikusgarria izan zen.



Mozorro ikusgarria, aurtengo Inauterietako onenetakoen artean sar daitekeena.



Zirko ibiltariak herriko kaleak zeharkatu zituen.



Kantauriko piratak, Golkoplazan abordatzeko prest.



Xagutxoak pozarren ibili ziren kalez kale, katxutxoek bustitzea gogoko ez dutelako akaso.



Andaluziako grazia berezi hori ekarri zuten Andoainera.



Trogloditak ere kalez kale ibili ziren Andoainen.



Ikasle zintzoen jantziarekn, aurpegi bihurriak.

Ikasleak izan ziren mozorrotzen lehenak

OSTEGUN GIZENEAN HERRIKO HIRU IKASTETXEETAN MOZORRO FESTA OSPATU OHI DUTE; TXIKIENEK IKASTETXEAN BERTAN ETA GAINERAKOEK GOIKOPLAZAN. EGURALDI EDERRARI ESKER, OSPAKIZUN EDERRA EGIN ZUTEN.



Goikoplazan, musika lagun, salto eta dantza ibilli ziren arratsaldeko lehen orduan.



Haurrek Inauterietan murgiltzeko lehen pausoak ikastetxearen eskutik ematen dituzte.



Koadrila ezberdinak bildu ziren, tartean argazkiko turista koadrila hori.



Udaltzainen lana osatzeko gogoz zegoen polizia koadrila.

Aurreko egunetako eguraldi hotzak atseden hartu zuen, hain justu haurrek Inauteri eguna ospatu behar zutenean. Horri esker kaleak musikaz eta mozorroz bete ziren ostegu eguerdian. Ikasleak bakoitza bere ikas-

tetxearekin kalejiran Goikoplazara hurbildu ziren eta han denek elkarrekin inauteriaren etorrera ospatu zuten. Zerua urdin, plazan koadrilen bilkura bitxia zen: western giroko pertsonaiak eta poliziak, turistak eta euskal inauterizale tradizionalak.

Maskara lehiaketan saritu dituzten ikasle gazteak

8-9 urte

1. Alaitz Sagarzazu.
2. Unai Peñalvo.
3. Ainhoa Lopez.

10-11 urte

1. Markel Aznar.
2. Anne Vaz.
3. Nahia Artola.

12-14 urte

1. Igon Goikoetxea.
2. Lili Zubeldia.
3. Unai Pernas.



Irudian, Inauterien euskal tradizioa irudikatzen duten mozorroak.



Aita Larramendi ikastolan ezusteko atsegina izan zuten ikasle gazteenek. Porrotx bera hurbildu zen!

Herrigunearen mapa landu dute generoaren ikuspegitik

Andoain denontzat berdin

Genero ikuspegitik, herriguneko ezaugarri positiboak eta hobetu beharrekoak identifikatzeko saiakeran murgildu da Udala.

Herriko hainbat kolektibok parte hartu dute tailer horietan: erretiratuak, gazteak, etab. Eguneroko bizitzan garrantzitsuak diren lau ardatz hartu dituzte kontutan: mugikortasuna, ekipamendu publikoak, espazio publikoa eta segurtasuna. Aurreko asteartean udazkenetik gaur arte landutakoaren ondorioak jendaurrean aurkeztu zituzten, eta ekarpen berriak egiteko aukera eman zieten bertaratu zirenei.

MARTXOAK 8, EKITALDIAK

Ohi bezala, parte hartzailea izango da. Horra ekitaldiak:



Aurtengo kalejira martxoaren 7an izango da. Hainbat emakume omenduko dituzte.

Martxoak 6, ostirala:

“Andoaingo kaleak denontzat berdin” erakusketaren irekiera ekitaldia. “Emakumeak musikan” kontzertua.

Martxoak 7, larunbata:

“Pausoz pauso” kalejira.

Martxoak 10, asteartea:

“Fraisoroko amak, Fraisoroko

haurrak” hitzaldia Eva Garcia-ren eskutik.

Martxoak 11, asteazkena:

“Philomena” film emanaldia, arratsaldean.

Martxoak 13, ostirala:

“A vueltas con la vida” antzez-lana Beatriz Carvajal aktorearen eskutik.

Elkarteen ereserkien diskoaren grabaketa

Datorrean asteen, otsailak 27 eta 28, Garate musika estudioetan herriko hamalau elkarten eserkiak bilduko dituen diskoa grabatzen hasiko dira. Antolatzaileek deialdia luzatu dute.

Danbor eta kupelentzat hitzordua: “Otsailaren 27an, ostiralekin, 19:00etan Makaldegian (Gurutze Gorriko erakuntza zaharraren ondoan). Egokiena, elkarte bakoitzetik bi kidek parte hartzea da, baina bateren batean partaide gehiago bada, ez dago arazorik. Ideialena, hogeina danbor eta kupel biltzea izango litzateke”.

Grabaketa estudio batean parte hartzea interesgarria izan liteke danbor-jotzaile askorentzat, izan ere, gutxitan goza daiteke halako gertakizun batekin.

Grabazioaren zuzendari den Joxe Mari Oiartzabalen asmoa kolpe eta erritmo ezberdinak grabatzea da. Horiek denak, behin grabaturik, biharamunean musikariek grabatuko dituzten doinuei erantsiko zaizkie. Ez dago zertan danborrekin eskarmenturik eduki beharrik; nahikoa izango da zuzendariaren aginduei jarraitzea. Argazkia aterako da partaide guztiekin, diskaren liburuxkan jasotzeko asmoz.

Musikariak: otsailaren 28an. Egun osoko grabaketa aurreikusi da. Antolatzaileek danbor-joleei hitzordura garaiz iristeko eskatzen diete. Zalantza bat edukiz gero, telefonoak: 649 043 812 (Jexux), edo eta 669 919 340 (Joxe Mari).

SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

AITOR MENDILUZE
AMAIA AGIRRE
ALAIA MARTIN
BEÑAT GAZTELUMENDI
JEXUX MARI IRAZU
UNAI MUÑO

GAI JARTZAILEA:
ION BELOKI

ANDOAINGO BASTERO KULTURGUNEAN
2015/02/22 12:00etan
laguntzaileak:

Harria Sahara
Andoaingo FOTU
Aurrerak sailgai: Deigado, Emtatza Stop, Urrats.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Unibertsitatea,
inguruko
gizartearekin
inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

Juan Cabanzón,
Gastronomia eta sukaldaritza arteak,
2. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · OTSAILAK 28
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MARTXOAK 14
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 14
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MARTXOAK 28
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORITATZA · MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 21
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ANDOAINGO BAKE EPAITEGIKO ZERBITZU UGARI KOLOKAN JAR DAITEZKE

Pribatizazioaren mehatxupean

Madrilgo gobernuak Erregistro Zibilaren kudeaketa Merkataritza Erregistratzaileen esku uzteko asmoa dauka. Estatu osoko Erregistro Zibiletako langileak erabaki horren kontra jarri dira zerbitzu

publikoa pribatizatu egin nahi dela esanda, eta Udaletan mozioak aurkezten ari dira. Ramon Iriarte Andoaingo Bake epaileak egoeraren berri eman dio Aiurriri.

Andoaingo Erregistro Zibileko langileek mozioa aurkeztu zuten Udalak urtariraren 29an egin zuen osoko bilkuran. Aurrera egin zuen mozioak, PPren ordezkariaren ezetzarekin eta gainerako alderdien babesarekin. Mozioaren arabera, Andoaingo Udalak, Merkataritza Erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014 Errege dekretu legearen aurkako jarra hartzen du. Aldi berean, bi eskera egiten ditu Udalak: Lehenengo, Madrilgo gobernuari: Erregistro Zibiletako bulegoek orain arte bezala zerbitzu publikoa eta doakoa ematen jarrai dezaten. Bigarren eskaera, Jaurlaritzari zuzentzen dio: Erregistro Zibilak kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziatzioak azkartu dituala.

Andoainen Bake Epaitegia eta Erregistro Zibila bat eginda daude. Beren funtzioen artean, jarduera penal eta zibileko kudeaketa osoa egitea dago.

Dekretua indarrean jarriko balitz, langile bakar bat geratuko litzateke Andoainen. Iriartek argi dauka helburua Bake Epaitegiei egungo zereginak kentzea dela: "Murrizketa gehiago etorriko dira etorkizunean: barruti judizial gehienek desagerketa adibidez, epaitegiak soilik hiriburuetan kokatu direlarik".

Oraingo, Erregistro Zibilaren pribatizazioak zenbat lanposturen galera ekarriko duen zehaztuta dagoela adierazi du Iriartek: "3.500 lanpostu publiko, egin diren ikerketen arabera".

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ERREFORMA

Asun Guerra PPko zinegotziak Udalaren osoko bilkuran adierazi zuenez, dekretuarekin Administrazio publikoa modernizatu nahi da, operatiboagoa eta eraginkorragoa bihurtu dadin. Iriartek aitortzen du erreforma baten beharrezan direla Erregistro Zibilak. "Logikoa da administrazioan gastuak murriztu nahi izatea; Andoaingo Erregistro Zibilak, esaterako, hiru langile ditu gaur egun, baina ez dago guztientzako adina lanik. Nolanahi



Erregistro Zibilaren pribatizazioak zenbat lanposturen galera ekarriko duen zehaztuta dagoela adierazi du Iriartek: "3.500 lanpostu publiko, egin diren ikerketen arabera".

ANDOAINGO BULEGOKO LANGILEEN IDATZIA

Mozioarekin batera, Andoaingo bulegoko langileek aurkeztu zuten idatzian, Erregistro Zibilaren lan ardurak azaltzen dira: "Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak eta heriotza. Hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere hor tramitatzen dira: hots, aitasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-dekla-

razioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzeko; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoak duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eramanez dutenak betidanik; eurek bermatzen dituzte jasotako datuak, eta ere berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratzeko libre eta doakoa".

ere, erreforma horretarako bideratu nahi diren neurriak auzitan jartzen ditu. Dekretuaren atzean dauden arrazoi edo interesak zeintzuk izan daitezkeen susmatu egiten du: "ez dakit kasualitatea den ala ez, baina Rajoy eta bere bi anaia zein dekretuaren bultzatzaile izan zen Gallardonaren erraina erregistratzaileak dira. Jakina, etxebizitzaren salerosketen arloan mugimendua izugarri jaitsi denez, merkataritza erregistratzaileen lana ere beharra etorri da...".

Erregistratzaileak, berez, ez dira funtzionarioak. Fede-emaike publikoak dira, notarioen antzera. Monopolioa daukate arlo horretan. Ez daukate estatua-

ren soldatarik, ezartzen dituzten tasetatik bizi dira. Plazak oso mugatuak daude, eta egun, estatuan, 800 bat merkataritza eta ondasun erregistratzaile dira.

TASEKIN ALA DOAKOA?

Erregistro zibileko langileek adierazi dute erregistratzaileek tasak jarriko dituztela egun doan eskaintzen den zerbitzua ematearen truke. Bat egiten du iritzirik horrekin Iriartek: "Egia da dekretuak zerbitzua doakoa izaten jarraituko duela adierazten duela. Baina horrek ez dauka zentzurik: erregistratzaileek langileren bat-edo zerbitzu horretara espreski bideratu behar-

Andoainen Bake Epaitegia eta Erregistro Zibila bat eginda daude. Beren funtzioen artean, jarduera penal eta zibileko kudeaketa osoa egitea dago

Andoaingo bake epaile Ramon Iriartek argi dauka dekretu berriaren helburua bake epaitegiei egungo zereginak kentzea dela

ko dute; hots, soldata bat gehiatu beharko du bere enpresan. Gauzak horrela, non legoke negoziotik?".

Erregistratzaileen kolektibokan zenbait zalantza agertu izan dituztela adierazi du Iriartek: "esku beltzen bat badabilen aipatzen dute, baita *pelotazoa* ere, zeinean 80 milioi euro mugituko litzuzkeen erregistroen jardueran".

Bestalde, Iriartek auzitan jartzen du langile horrek zeregina egoki beteko lukeenik. "Konplexuak dira Erregistro Zibiletan landu behar diren zenbait espediente; horiek, Erregistro Zibilaren arloan espezializazioaren jabe diren eskarmentu handiko langileek kudeatzen dituzte".

KEXAK

Herritarrek Erregistro Zibilei egiten dizkien kexak (atzerapen administratiboak, ilarak...) ere aipatu zituen Guerra zinegotzi popularrak Udal batzarrean, dekretuaren alde jotzeko. Ramon Iriartek ukatu egin du arrazoi hori, Andoaingo egoitzari dagokionez behintzat. "Herritarrengandik gertutasuna da eskaini dezakegun ezaugarri handienetakoa, eta alde horretatik, gurean, egunean bertan egiten ditugu tramite asko. Gure eskumenetik kanpo geratzen direnak, berriz, gogoko instantzietara bidaltzen ditugu, eta kasu horietan irauten dute irauten dutena, alegia, administrazioak zeregin horietarako jarri dituen langileen ahalmenek eta lan kargak agintzen dutena".

Atzera begira jarrita, Andoaingo bulegoan orain urte batzuk oihartzun handia eduki zuen kexa ekarri du gogora Iriartek: "jaiotzetan izen-emateak euskaraz egiteko eskubidea eskatu zitzaigun. Gu prest geunden eskubide hori gauzatzeko, baina kon-

tua zen erregistroko sistema informatikoa ez zegoela egokitu. Sistema berria ezarri behar izan zen orduan, eskubide horri bide emanek".

INBERTSIO PUBLIKOA, PRIBATIZATZEA

Azken urteetan Erregistro Zibilak modernizatu asmoz egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatzea ahalbideratuko duela dekretu honek, gogoratu dute mozioaren aurkezleek. Euren salaketaren arabera, diru publikotik 128 milioi euro "oparitu" zaizkie merkataritza erregistratzaileei.

Andoainen ere ez da asko berritu zela sail informatikoa, Iriarteren esanetan. "Kale borrokaren garaian, Erregistro Zibilaren bat edo beste erasotu ziren, eta orduan, zenbait bake epailek alarma gorria piztu genuen: paperezko agiri ofizial guztiak errez gero, eskuratu ezinda geratuko gara! Horrela Jaurlaritzak diru partida bideratu zuen digitalizazioan laguntzeko. Andoainen egitasmoa Jaurlaritzaren eta Udalaren artean finantzatu zen. 50.000 euroko gastua izan zen, oker ez banago".

Erregistro Zibiletako langileek beste bi arrazoi plazaratu dituzte, dekretuarekin haserre egoteko. Datu babesaren segurtasun faltarekin zerkusua du bata. Merkataritza Erregistroko langileek herritarren datu pertsonaletarako sarbidea edukiko dute, nahiz eta ez izan funtzionario publikoek dituzten isilpeko eta sekretuko betebeharririk. Bestalde, Erregistro Zibiletan gordetzen diren historia pertsonalerako, familiarrerako eta herri gisa dauden datuetarako sarbidea murriztuko dela usate dute; izan ere, herritarren arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki daiteke bertan.



KIROL ALBISTEAK

Andoaingo kirol asteko merezimendu saria



2012ko kirol asteko merezimendua:
Jose Antonio Gutierrez "Guti".



2013ko kirol asteko merezimendua:
Maria Luisa Irizar.



2014ko kirol asteko merezimendua:
Joxe Barberena.

Aurtengo kirol merezimendu sariaren prozesua martxan jartzea erabaki dute **Allurralde kirol patronatua** osatzen duten kideek. Azken urte-etako ohiturari jarraituz, beraz, "Andoaingo edozein herritarrek proposamenak aurkezteko aukera izango du". Martxoaren 13ra bitarteko epea dago. Herritar bakoitzak, gehienez ere, hautagai baten izena aurkeztu ahal izango du.

Andoain.eus webgunean afitza prest dago, hura bete eta

antolakuntzari helarazi behar zaio. Bi bide daude:

- allurralde@andoain.eus helbidera emaila bidaliz
- Kiroldegian dagoen kutxan proposamena sartuz.

Kirol merezimendu saria emateko xedea "Andoainen kirolaren promozioan eta sustapenean nabarmendu diren herritarrei" euren lana aitortzea da. Ondorengo arrazoiengatik nabarmendu direnak sarituko dituzte:

- Herriko kirolaren alde egin-dako lanagatik.

- Bere kirol ibilbide pertsonalagatik.
- Bozketa prozesua amaituta, aukeraketa egingo dute maiatzaren 11n. Orduan saridunari jakinaraziko zaio eta ondoren herritarrei. Saria Kirol Astearen barruan egingo den ekitaldi berezian jasoko du.

Iaz Andoaingo txirrindulari eskolako Joxe Barberenak jaso zuen saria. 2013an, berriaz, Maria Luisa Irizar korrikalari handiak. Eta 2012an Leizaran eskubaloi taldeko Jose Antonio Gutierrez "Guti"k.

Elikadura futbol jokalaria gazteengan

Urnieta KE elkarteko futbol atalak hitzaldia antolatu du "Elikadura futbol jokalaria gazteengan: hazkundera eta errendimendua" izenburupean. Otsailaren 25ean izango da, asteazkenarekin, arratsaldeko 19:30etan hasita Lekaion. Hi-

tzaldiaren helburua hezitzailea denez, antolatzaileek jokalaria, entrenatzaile eta gurasoei gonbitea luzatu nahi diete. Hizpideak askoren artean, hauexek: nutrienteak, astean zeharreko eta partidetakoa menuen diseinua...

Anoetako lau orduak

2015. urtean, eta Belodromoren 50. urteurrena aintzat hartuz, **Anoetako 4 orduak** ikuskizuna antolatu dute. Munduko pistard onenak hurbilduko dira, eta Euskadiko 6 orduak gogoan, kirol jarduera gehiago izango da. **Andoaingo txirrindulari eskolak** iragarri duenez, martxoaren 21eko ikuskizunerako sarre-rak salgai dauzkate.



Deialdi berria Garciarentzat

Nahikari Garcia futbolaria estatuko 19 urte azpiko selezioarekin jokatzeko deitu dute. Lan saioak egingo dituzte hurrengo egunetan, eta

apirilaren 4tik 9ra Europako txapelketarako fasea jokatu dute Portugalen. Arerioak, Portugal, Finlandia eta Turkia izango dira.

Preferente mailako futbola

Asteburuko partidak:

Urnieta-Pasaia
Aurreko jardunaldia:
Allerru 0-3 Euskalduna
Mariño 1-2 Urnieta.

Sailkapena, futbola:

1. Orioko 45
2. Euskalduna 43
3. Urnieta 41
4. Baskonia 35

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Easo 62-26 Ganbara Kad.
Ganbara Inf. 26-42 Easo

Asteburuko Allurralden:

Ganbara Sen.-Tolosa
Larunbata, 21. 19:15.
Ganbara Inf.-Aldapeta
Larunbata, 21. 09:00.

Urnietako eskubaloia

CORAZONISTAS 19
URNIETA 20

Jubenilak, mutilak. Partida orekatua ia hirurogei minututan zehar, eta emozioa handiagoa izan zen zelaian markagailurik ez zegoelako. UKEkoek azken segunduan lortu zuten gola eta bi puntuak etxera ekarri zituzten. Garaipen garrantzitsua.

URNIETA 33
HONDARRIBI 24

Kadeteak, mutilak. Hondarribiarrak Gipuzkoako txapelketan seigarren sailkatu ziren, urnietarrak zazpigarren. Igandean, ordea, hondarribiarrak baino askoz gehiago direla erakutsi zuten. Diputazioako txapelketa ona egingo dute horrela jarraituz gero.

Garaipen politak UKEko pilotarien eskutik

GAZTELEKU 37
URNIETA 40
Euskal Herria, erremontea. Seniorrak. Imanol Ansa-Xabier Ozaeta. Garaipen garrantzitsua, finalaurrekoak jokatzeko aukerekin.

FUNDACION REMONTE B 15
URNIETA 40
Euskal Herria, erremontea. Seniorrak. Ander Goikoetxea-Ibai Martiarena. Hauena ere garaipen garrantzitsua.

URNIETA 40
BEAR ZANA 13
Gipuzkoa, seniorrak. Julen Loitegi-Aritz Solano. Garra-



Ibai Martiarena eta Ander Goikoetxea.

tzia handiko garaipena, erakustaldi bikaina eskainiz. Aritz lasartearra laguntzera etorri zen, bikain arituz. Izan ere Loitegi kiderik gabe zegoen, Mikel Imaz eta Jon Ander Oinazpi lesioak jota daudelako. Lasartearrak atzeko lerroetan laguntza aparta eskaini zuen. Finala eskuratu dute.

URNIETA 16
LEMOA 22

Euskal Liga, kadeteak. Jon Alberdi-Imanol Odriozola. Etxean finalaurrekoetara sartzeko lehen aukera galdu zuten. Lastima! Hurrengo partida irabazi behar dute, bai ala bai.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Buzina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com

Publizitatea:

Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna: Garbiñe

Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 20TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ “Las ovejas no pierden el tren”.

19:30, 22:00. Larunbata, 21.

19:30. Igandea, 22.

19:30, 22:00. Astelehena, 23.

■ Asteburu honetarako iragarritako bazegoen ere, atzeratu egin da data zehatzik eman gabe:

“50 sombras de Grey”.

■ “Beltzean mintzo: Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasaz” dokumentala, Udalaren eta Garabideren eskutik. Lehen aldiz zazpi hizkuntza komunitateko hamalau pertsonen euskararen herriari buruzko gogoeak eskainiko dituzte. Ondoren mahai-ingurua.

12:00. Bastero.

Otsailak 24, asteartea.

Urnietan

■ “Operación cacahuete”.

16:00, 18:30. Sarobe.

Otsailak 22, igandea.

■ “Comprár, tirar, comprar”.

18:00. Lekaio.

Otsailak 22, igandea.

Manifestazioa

Donostia

■ “Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara”, Kontseiluaren eskutik.

17:30. Gipuzkoa plaza.

Otsailak 28, larunbata.

Musika

Andoain, Bastero

■ Piano jaialdiko erakusketa irekierako emanaldiak:

12:00 Mikel Urdangarin, Estitxu Sistiaga, Uxue Ricón, Elena Gorrotxategi.

19:00 Uxue Ricón, Myriam Ulanga, Aitor Cano eta Javier Gonzalez piano-jotzaileak. Rodrigo Samano biolontxelo jotzailea.

Otsailak 21, larunbata.

■ Lau mende, lau esku:

Amaia Zipitria eta Borja Rubiños piano jotzaileak.

19:00. Bastero.

Otsailak 23, astelehena.

■ Piano jaialdia:

Otsailak 28-martxoak 1.

Batzarra

Andoain

■ Peña Santa Krutz elkartearen urteko batzarra.

10:30. Elkartean bertan.

Otsailak 22, igandea.

■ Udalaren batzarraldia.

19:00. Udaletxea.

Otsailak 26, osteguna.

Lehiaketa

Andoain, Bastero

■ Inauterietako argazki lehiaketa

250 euroko sari bakarra.

Lanak aurkezteko eguna:

10:0-13:00 / 16:30-19:30.

Otsailak 27, ostirala.

Bertsoak

Andoain

■ Sahararen aldeko bertso saioa: Aitor Mendiluze, J.M. Irazu, Amaia Agirre, Alaia Martin, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi.

12:00. Bastero. 6 euro.

Otsailak 22, igandea.

Solasaldia

Andoain

■ Andoaingo Udal liburutegiak otsailaren literatur solasaldi berria antolatu du: “Intemperies (babes bila)”, Lourdes Oñederra.

Ordutegia: 19:00-20:30.

Otsailak 24, asteartea.

Antzerkia

Andoain, Bastero

■ Erdibana, Joxe Ramon Sorroiz eta Iker Galartza.

21:30. 12 euro.

Otsailak 20, ostirala.

■ “Hiru txerritxoak eta otsoa”, haur antzerkia Glu-glu taldearen eskutik.

17:00. 4 euro.

Otsailak 22, igandea.

Erakusketa

Andoain

■ Piano jaialdiak 10 urte:

Erakusketa eta musika emanaldiak.

Otsailaren 21etik aurrera.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Unax Lopetegi Zatarainek 9 urte bete zituen otsailaren 15ean. Jator-jator segi. Aner anaia, Oinatz lehengusua eta etxekoak.

ANDOAIN/AIA

ZORIONAK



Unai Alcorta Urruzolak, otsailaren 25ean bi urte egingo ditu. Zorionak eta muxu handi bat gure etxeko bihurtu ziren!

ZIZURKIL ANDOAIN

ZORIONAK



Ane Rapun Perezek 9 urte bete ditu otsailaren 25ean. Mila zorion eta muxu handiak etxeko guztien partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK




Zorionak **Peio**. Bost urte bete dituzu. Ondo pasa eguna, amona eta aitoren partetik.

URNIETA

ZORION AGURRAK AIURRIN
• diseinua@aiurri.com
• Whatsapp bidez: 619 163 537.

Kale istiluen salaketa

Udal bozeramaile taldeak otsailaren 8an Idiazabal kalean izandako kale istiluak salatu ditu. Antza denez, goizeko 06:00ak eta 07:30ak artean, gazte talde batek zenbait zabor edukiontzia irauli eta obrako hesiak errepide erdian utzi zituen. Era berean, zenbait eraikinetako fatxadatan pintadak egin zituzten. Urnietako Udaleko bozeramaile batzordeak aho batez zera adierazi du: “Urnietako Udalak otsailaren 8ko goize-



an gertatutako gizalegearen kontrako ekintzak salatu eta arbuatzen ditu gure herrian bizikidetzak baketsuaren kontrako erasoak direlako”.

‘Irabazi Ganemos Andoain’ aurkezpena ostiral honetan

“Ezker Anitza-IU, Equo eta Alternativa Republicana erakunde politikok gure siglen gainetik eragiteko ordua dela uste dugu, eta ekimen ireki baten alde apustu egiteko ezkertiaritasuna, errepublikazaletasuna, ekologismoa eta

feminismoaren aldeko indarrak batuz. Andoaingo Udal hauteskundeetarako proposatzen dugun plataforma **Irabazi Ganemos** izango da”. Ekimena ostiralean aurkeztuko da, arratsaldeko 18:30etan Uriginen.

Korrikaren aldeko bertso afaria Irunberrin

Korrika batzordeak ohar bidez adierazi duenez, “Datorren martxoaren 6an Korrika bertso afaria egingo da Irunberri elkartearen. Afaria gaueko 21:00etan izango da eta txartelak salgai daude Irunberrin, Ernaitzan eta AEK euskaltegian (943 59 17 04 telefonoa). Txartelaren prezioa 18 eurokoa da

eta txartela erosteko azken eguna martxoaren 3a izango da.

Bertso afaria Lasarte eta Andoaingo bertsolarien arteko lehia izango da. Andoaindik Ion Beloki, Jon Eskudero eta Aritz Eskudero arituko dira eta Lasartetik Ane Labaka, Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz.

TXOTX!

Kantu liburuxka 2015

Aiurriren eskutik

R. Zabala
943 690 774.... Aduna

Sarasola
943 690 283.... Asteasu

Larre-gain
943 555 846.... Ereñozu-Hernani

Aburuza
943 692 452.... Aduna

Gaztañaga
943 591 968.... Andoain

Oianume
943 556 683.... Urnietan

Altuna
943 554 917.... Urnietan